



BARNE EBAZPENA, 2020ko ekainaren 8koa, Hezkuntza Saileko Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bitartez, 2020-21 ikasturtean herri-ikastetxeek ULIBARRI Programan sartzeko edo jarraitzeko bete behar dituzten baldintzak eta herri-ikastetxe bakoitzari dagozkion dedikazio-orduak esleitzeko irizpideak ezartzen baitira.

Ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuak (ekainaren 21eko EHAA) Hezkuntza Normalkuntzako ULIBARRI Programa arautzen du. Ondoko eragile hauek bat egiten dute ULIBARRI programan: Hezkuntza Administrazioak, ikastetxeak eta EAeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko zein kontzertatuetako hizkuntza-normalkuntzako proiektuen garapenean diharduen eragileak.

Dekretu horren 8. C) artikulua honakoa ezartzen du: " Hezkuntza arloan eskuduntza duen Sailaren ikastetxeetan, ikastetxeko hizkuntza normalizazioko arduradun teknikoari eskola-emankizunetan esleitu zaizkion ezinbesteko liberazio-orduak Sailak beteko ditu. Salbuespen izango dira Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak; izan ere, ikastetxe horietan, liberazio-orduak ikastetxe bakoitzeko langileen ohiko dotazioen barruan sartuta daudela ulertuko da".

Bestalde, Dekretuaren 28.1) artikulua honakoa dio: "ULIBARRI Programaren jarraipen-batzordeak proposatuta, hezkuntza alorreko eskumenak dituen sailburuordeak ebazpena emango du ULIBARRI Programan onartua izateko eta bertan jarraitzeko prozeduretan, eta programan sartzeko diren ikastetxeen zerrenda onartuko du, baita bertan jarraituko dutenena ere, ikastetxeko hizkuntza normalizazio planaren arduradun teknikoaren ateko liberazio-orduekin batera".

Hortaz, ULIBARRI Programaren barruan 2020-2021 ikasturtean arituko diren edo sarbide berria eskatu nahi duten herri ikastetxeentzako prozedura eta baloratzeko irizpideak ezarri behar dira barne-ebazpen bidez.

Horren guztiaren haritik

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- Esleitutako ordu-kopurua.

Hezkuntza Sailak 3, 6 edo 9 orduko dedikazioa esleitzeko dio ULIBARRI Programan ariko den herri-ikastetxe bakoitzari, ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako baremoaren bidez.

2. artikulua.- Eskabideak

1.- ULIBARRI Programan sartu edo jarraitu nahi duten ikastetxeek eskabidea egin behar dute, 2020ko ekainaren 11tik 2020ko uztailaren 10era arte. Azken hori izango da eskabideak aurkezteko azken eguna.

Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartzen direla adierazten du.

2.- Ikastetxe berriak: 2020-2021 ikasturterako ULIBARRI Programara bildu nahi duten herri-ikastetxeek jarraian aipatzen diren dokumentuak aurkeztu behar dituzte epe horretan, eskabidearekin batera, helbide honetan <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/ulibarrri-2020>



- a) Ikastetxearen hizkuntza normalizazioko proiektua, dekretu honetan ezarritakoaren arabera eta aplikazioari begira Berritzeguneetako hizkuntza normalizazioko aholkulariek emandako instrukzioekin bat, eta, betiere, www.ulibarri.euskadi.eus webgunean dagoen eredu erabilia.
- b) Proiektu-proposamenak ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren edo ikastetxeko Eskola Kontseiluaren onarpena baduela egiaztatzen duen agiria (akta).
- c) Proiektu-proposamena ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren ildo nagusietan txertatzen dela egiaztatzen duen Ikastetxeko zuzendaritzaren agiria.

3.- ULIBARRI Programan dauden ikastetxeak: 2020-2021 ikasturtean ULIBARRI programan jarraitu nahi duten ikastetxeek horretarako eskabidea egin beharko dute helbide honetan:
<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/ulibarri-2020>

3. artikulua.- ULIBARRI Programan dauden ikastetxeek egin beharrekoak.

1.- ULIBARRI Programan dauden ikastetxeek 2020-2021 ikasturteko Plana eskegi behar izango dute egoitza elektronikoko "nire eskabideak" atalean:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/nire-eskabideak/>

Aurkezteko epea: 2020ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean.

Baldintza hau eskabidea egin eta gero, eta ULIBARRI Programaren Jarraipen Batzordeak onartutakoan bete behar da. Jarraipen Batzordea honakoek osatzen dute:

–Batzordeburua: Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria.

–Bokalak:

a) Hezkuntza berritzatzeko ardura duen Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuko burua. . Iñigo Barruso Lazkano.

b) Euskara Zerbitzuko ULIBARRI Programaz arduratzen diren bi teknikari. Alfredo Castresana Herran eta Maitane Izagirre Zubimendi.

c) Berritzeguneetako normalizazioko bi aholkulari (HNA) eta Berritzeguneko hizkuntza normalizazioko programaren arduraduna. Maria Luz Arranz Uribarrena, Ana I. Garcia Aretxabala eta Joseba Ibarretxe Fernandez de Larrinoa

d) Egoki iritzi gero, hizkuntza normalizazioaren arloan itzala duten adituek ere parte hartu ahal izango dute batzordean, gehienez bik.

– Idazkaria: b) letran aipatutako teknikarietako bat.

2.- Era berean, 2021eko ekainaren 1etik 2021eko ekainaren 30era bitartean, 2020-2021 ikasturteko bukaerako memoria eskegi behar izango dute egoitza elektronikoko "nire eskabideak" atalean:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/nire-eskabideak/>

4. artikulua.- Bete beharreko araudia.

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan hizkuntza normalizatzeko ULIBARRI Programa arautzen duen 84/2019 Dekretua bete behar da deialdi honetan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, herri ikastetxeek erreklamazio gutuna igor dezakete Hezkuntzako sailburuordearengana, jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.



Gasteizen, 2020ko ekainaren 8an.


Miren Maite Alonso Arana
Hezkuntza sailburuordea